

Langabeziagatiko  
prestazioak

**Langabeziagatiko sorospena**  
**Langabeziagatiko babesa**

URTARRILA- 2017



Estatuko Administrazio Orokorraren argitalpenen katalogoa  
<http://publicacionesoficiales.boe.es>

**Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak editatua**

Condesa de Venadito, 9. 28027 - Madrid

SEPEko argitalpen ofizial hau gazteleraz eta estatuko beste hizkuntz ofizialetan editatzen da

NIPO WEB: 274 - 17 - 036 - 6

Informazio hau zabaltzeko baino ez da.

## INDIZEA

- **Langabeziagatiko sorospena**

* Betekizun orokorrak.....	5
* Eskaera aurkeztea, dokumentazioa eta izapidetzea .....	5
* Zenbatekoa.....	7
* Ordainketa .....	7
* Errenta gabezia.....	8
* Familia erantzukizunak.....	9
* Jaso zenitzakeen sorospenak .....	10

- **Langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestazioa agortu duten langileak, familia erantzukizunak dituztenak**

* Betekizun espezifikoak .....	11
* Dokumentazio espezifikoa .....	11
* Iraupena .....	12
* Izapideak .....	12

- **LANGABEZIAGATIKO KONTRIBUZIO-MAILAKO PRESTAZIOA agortu duten 45 urtetik gorako langileak, familia erantzukizunik ez dutenak**

* Betekizun espezifikoak .....	13
* Iraupena .....	13
* Izapideak .....	13

- **itzulitako langile emigranteak**

* Betekizun espezifikoak .....	14
* Dokumentazio espezifikoa .....	14
* Iraupena .....	14
* Izapideak .....	15

- **langabeziako legezko egoeragatik, KONTRIBUZIO-MAILAKO prestazioa jasotzeko gutxieneko kotizazio-epaia bete ez duten langileak**

* Betekizun espezifikoak .....	16
* Dokumentazio espezifikoa .....	16
* Iraupena .....	17
* Izapideak .....	17

- **ESPETXETIK askatutakoak**

* Betekizun espezifikoak .....	18
* Dokumentazio espezifikoa .....	18
* Iraupena .....	19
* Izapideak .....	19

- **Ohizko lanerako erabateko baliaezintasun iraunkor, baliaezintasun handi egoera hobetzeko espedienteak berrikus- tearen ondorioz guztiz gai edo baliaezin partzial aitortzen diren langileak.**

* Betekizun espezifikoak .....	20
* Dokumentazio espezifikoa .....	20
* Iraupena .....	20
* Izapideak .....	21

- **55 urtetik gorakoentzako langabeziagatiko sorospena**

* Betekizun espezifikoak .....	22
* Dokumentazio espezifikoa .....	23
* Iraupena .....	24
* Izapideak .....	24

- **LANGILEEN BETEBEHARRAK**

- **sorospenaren bateragarritasunak eta bateraezintasunak**

* Bateragarritasuna .....	27
* Bateraezintasuna .....	27

- **ARAU-HAUSTEAK eta zigorrak**

* Arau-hauste arinak .....	29
* Arau-hauste larriak .....	30
* Arau-hauste oso larriak .....	30

## LANGABEZIAGATIKO SOROSPENA

Diru-laguntza da eta bere helburua kontribuzio izaera duen prestazioaren babesa osatzea da langabezia-egoeretan. Diru-laguntza eta, hala dagokionean, erretirorako Gizarte Segurantzaren kotizazioa hartzen du. Gainera, jarduera babesleak formazio, hobekuntza, orientazio, birmoldaketa eta laneratze jarduera bereziak izango ditu langabeentzat eta lan finkoa sustatzea xedetzat duten beste jarduerak. Haren iraupena eta zenbatekoa sorospen-modalitatearen araberakoak izango dira.

### BETEKIZUN OROKORRAK

- Langabezian egotea.
- Langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestaziorako eskubiderik ez izatea.
- Prestazioa jasotzen duen aldi osoan zehar enplegu eskatzaile moduan izena emanda egotea eta jarduera-konpromisoa sinatzea.
- Beren jatorria edozein bada ere, hilero Lanbide arteko [Gutxieneko Soldataren \(LGS\) %75](#) baino handiagoko errentarik ez izatea, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta.
- Laguntza jasotzen den bitartean betekizun guztiak bete behar dira. <https://sede.sepe.gob.es>

### ESKAERA AURKEZTEA, DOKUMENTAZIOA ETA IZAPIDETZEA

Langileak <https://sede.sepe.gob.es> web-orrian edo prestazioen bulegoan (aurretiaz ordua eskatuta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoan), erregistro publikoko edozein bulegotan edo posta administratibo bidez bidalita aurkeztu ahal izango du.

Eskaera ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, orduan, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunean sortuko da eskubidea eta iraupena murriztuko da, ezarritako epean eta eran eskatu izan balitz eskubidea sortuko zen datatik eskaera benetan bideratzen den datara dauden adina egunetan.

Sei hilez luza daitezkeen sorospenetan, agortzen den hurrengo egunaren eta sortutako azken hilekoaren ordainketa epearen iraungitze-dataren osteko 15 egunen artean formulatu beharko da. Eskatzaileak baldintzak aldatu ez direla edo aldatu direla adieraziko du eskakizunean, eta bigarren kasuan bakarrik aurkeztu beharko ditu errentak, eta familia erantzukizunak, hala baleude.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerek eskubidea haren ondorengo egunean aktibatzea eragingo du, eta galdu egingo ditu seihilekoa agortu zenetik igaro diren egunak.

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA HONAKOA DA:

- Sorospenaren [eskaera](#), jarduera-konpromisoa, errenten aitorpena eta familia erantzukizunak eta bankuko helbideratzea barne hartzen dituen inprimakia.

### IDENTIFIKATZEKO

- Espainiarrak: Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo pasaporteak.
- Espainian bizi diren atzerritarak:
  - \* Erkidegokoak: Europar Batasuneko biztanle gisa erregistratuta egotearen ziurtagiria, non AIZ ageri den, eta jatorrizko herrialdeko nortasun agiri (edo pasaporte) zenbakia.
  - \* Erkidegotik kanpokoak: Atzerritarren Identifikazio-txartela (TIE), non AIZ ageri den, eta pasaporteak.

### ZURE ESKAERA BIDERATZEKO

- TITULARRA zaren eta prestazioa jaso nahi duzun kontu-zenbakia daraman edozein banku-agiri.

Familia erantzukizunik ez izatearren edo zehaztutako errentak baino handiagoak izatearren sorospena lortzerik ez baduzu, kontribuzio-mailako prestazioa agortu denetik urtebete igaro baino lehen hura eskatzen baduzu eta LGSaren [%75 gainditzun](#) ez duten errentak dituzula ziurtatzen baduzu (aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kanpo eta familia erantzukizunak badituzu) eskatzeko eskubidea izango duzu.

## ZENBATEKOA

Une bakoitzean indarrean dagoen Ondorio Askotariko Errenta Adierazle Publikoa ([IPREM](#)) %80.

Lanaldi partzialeko lan bat galtzeagatiko langabeziaren kasuan, zenbateko hori aurretik lan egindako orduen arabera jasoko da.

55 urtetik gorako langileentzako langabeziagatiko sorospena jasotzen den bitartean, erakunde kudeatzaileak (SEPEk edo Itsasoko Gizarte Institutuak) erretiroari dagozkion Gizarte Segurantzaren kotizazioak ordainduko ditu.

Aldizkako langile finkoa denean, 55 urtetik behera baditu eta 180 egunez edo gehiagoz kotizatu duela egiaztatu badu, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak 60 egunez ordainduko dio hari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, eskubidea sortu den egunetik aurrera. 55 urtetik gorakoak badira, Itsasoko Gizarte Institutuak erretiro-kontingentziari dagozkion Gizarte Segurantzako kotizazioak ordainduko dizkio sorospena jasotzen duen aldi osoan, adierazitako adina betetzen duenez geroztik.

Aipaturiko kasuetan kotizazioa kalkulatzeko, une bakoitzean dagoen gutxieneko kotizazioa hartuko da oinarritzat.

## ORDAINKETA

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo Itsasoko Gizarte Institutuak itsasoko langileentzat, behin prestazioa aitortuta, eskatzailearen helbidera bidaliko du hartutako ebazpena, eta bertan, beste datuen artean, ondokoak bilduko dira: aitortutako epea, oinarri arautzailea, ordainduko duen erakundea eta ordainketa-data.

Sorospenaren ordainketak hil bukaeran egingo dira, eskatzaileak adierazitako bankuko kontuan diru-sarrerara eginez, hura titularra delarik, edo, salbuespen gisa, eskudirutan, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak hala baimentzen badu.

Hileko bakoitza jasotzeko eskubideak, jaso eta hurrengo urtean balioa galduko du.

**ERRENTA GABEZIA**

Errenta gabekiaren betekizuna zehazteko, sorospena jaso ahal izateko, ondorengo arauak jarraituko dira:

- Errentak etekin oso edo gordinaren arabera zenbatuko dira. Enpresa jardueretatik, jarduera profesioetatik, nekazari jardueretatik, abeltzaintzatik edo jarduera artistikoetatik sortzen den etekina diru-sarreraren eta haiek lortzeko gastuen arteko aldearen arabera zenbatuko da. Ondare-irabaziak ondare irabazien eta galeren arteko aldearen arabera zenbatuko dira.
- Titularrari esleituko zaizkio errentak, bikotearen erregimen ekonomiko aplikagarria edozein izanda ere, baina ezkontideetako batek ondasun bat ustiatzetik eratorritako errentak, bikotearen erregimen ekonomikoa ondasun-eraentza irabaziena bada, erdibitu egingo da bi ezkontideen artean.
- Errentak hilean behin jasotzen badira sorospenaren arrazoia izan den gertakizunaren aurreko hil osoari dagokiona zenbatuko da, gertakizunari edo eskakizunari dagokion hilaren barruan, edo hura jasotzen denean.
- Errentak ordainketa bakarrean lortzen badira, sorospena eragin duen gertakizunaren aurreko hil naturalean lortutakoak zenbatuko dira, edo eskaera aurreko hilekoak, dataz data zenbatuak, edo jasotzen diren bitartean, eta hamabi hilabetetan zatituta. Legezko kalte-ordaina gairiditzen duten ordainketa bakarrean ordaindutako kontratu-etenagatik emandako kalte-ordainei, ondasun higiezinaren edo higikorren besterentzeen ondorezko etekinei, ohiko etxebizitza denean izan ezik, pentsio-planen erreskateari eta ondare-irabaziei eta etekin erregularrari aplikatuko zaie.
- Ondare-ondasunak, higigarrien eta higiezinaren inbertsio-funtsak, erretiroko funtsak edo planak edo beste edozein motatako kapital-inbertsioak izanez gero, ohiko bizilekua eta pentsio planak izan ezik, pertsona fisikoaren gaineko errentaren zerga gerotua dutenean, hileko etekin eraginkorra zenbatu ez denean, ustezko hileko etekina kalkulatzeko ondasunaren, funtsaren edo planaren balioari indarrean dagoen diruaren legezko interesa aplikatuko zaio eta hamabi hiletan zatituko da.

**EZ DIRA ERRENTATZAT HARTUKO, BESTEAK BESTE:**

- Gizarte Segurantzaren Administrazioarekin Hitzarmen Berezia finantzatzera bideratutako zenbatekoa, baldin eta langileak erabakita berak bakarrik ordaintzen ez badu kuota; hala, errenta izaten jarraituko du.
- Eskatzailearen langabeziagatiko prestazioak.



- Lan kontratuaren amaieragatik kasu bakoitzean dagokion legezko kalte-ordainaren zenbatekoa, ordainketa bakar batean edo aldiro egiten bada ere.
- Gizarte lankidetzaren lanengatik jasotakoa eta sorospenen onuradunaren soldatak, sorospenarekin bateragarria dela adierazi duen enplegua sustatzeko programa erabili denean.
- 3 urte baino gutxiagoko seme-alabengatik emakume langileari egindako itzulera fiskalaren kobrantza aurre-ratua.
- Langabetuaren ohiko etxebizitzaren kapital higiezinaren etekinak, eta ohiko etxebizitza besterentzearen ondo-riozkoak, edo etxebizitza zaharberritzeko, hobetzeko edo erosteko diru-laguntza publikoak.
- Erreskatatu ez diren pentsio-planak.

## FAMILIA ERANTZUKIZUNAK

Familia erantzukizuna izango da, ezkontidea edo hogeita sei urtetik beherako seme-alabak, adoptatuak barne edo % 33ko ezintasuna edo gehiagokoa duten adineko ezinduak, edo adingabeko hartuak kargura izatea, zeinekin eskatzailea bizi den, horrela osatutako familia osoaren errenta guztiek zati osatzen duten familia-unitatea (eskaera barne), Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren [%75 gaintzen](#) ez dutenean, aparteko bi ordainen zati proportzionala kanpo utzita.

Ezkontidea, seme-alabak edo adingabeko hartuak ez dira kargurako senidetzat hartuko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %75 gaintzen dutenean, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kanpo.

Langabeziagatik sorospenari dagokionez, izatezko bikotekidea ez da familia-zamatzat jotzen. Hala ere, haren bizikidetzako unitatea bere izatezko bikotekidea eta bienak diren 26 urtetik beherako edo desgaitasunak dituzten seme-alabek osatzen badute, edo biek abegian hartutako adingabeek, Kode Zibileko 143. artikulua ezartzen duenaren arabera, alegia, gurasoek derrigorrez beren seme-alabak elikatu behar dituztela, izatezko bikoteak familia-erantzukizunak dituela ziurtatuko du familia-unitatearen errentak (bere eta izatezko bikotekidearen errenten batura) familia-unitatea osatzen duten kide-kopuruarengatik zatituta Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren %75 baino gehiagokoak ez badira.

Genero-indarkeriaren biktimen kasuan, langabeziagatiko sorospena eskatzen edo jasotzen duen langileak familia erantzukizunak dituen ala ez zehazteko, ez da ezkontide erasotzailea bere erantzukizuna izango, errenten maila edozein dela ere, eta ez da familia-unitatearen kideztat hartuko, eta haren errentak ez dira kontuan hartuko.

Errenta gabeziaren betekizuna zehazteko eta, dagokionean, familia erantzukizunena, gertakizunaren unean bete behar dira sorospen mota bakoitzaren baldintzak eta, gainera, sorospena eskatu denean ere, eta baita luzapenak edo berriz martxan jartzeko eskaerak egiten direnean zein haiek jasotzen direnean ere.

## JASO ZENITZAKEEN SOROSPENAK

- A. LANGABEZIAGATIKO KONTRIBUZIO-MAILAKO PRESTAZIOA AGORTU DUTEN LANGILEAK, FAMILIA ERANTZUKIZUNAK DITUZTENAK.
- B. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOA AGORTU ZAIEN LANGILEAK, AGORTU ZAIENEAN **45** URTETIK GORA BADUTE ETA SENIDERIK EZ BADUTE BEREN ARDURAPEAN.
- C. ITZULITAKO LANGILE EMIGRANTEAK.
- D. LANGABEZIAKO LEGEZKO EGOERAGATIK, KONTRIBUZIO-MAILAKO PRESTAZIOA JASOTZEKO GUTXIENEO KOTIZAZIO-EPEA BETE EZ DUTEN LANGILEAK.
- E. ESPETXETIK ASKATUTAKOAK.
- F. LAN EGITEKO GAI DIRELA DEKLARATUTAKO LANGILEAK EDO EZINTASUNAGATIKO PENTSIODUN IZAERA GALDU DUTENAK, BEREN OHIKO LANERAKO BALIAEZINTASUN HANDIA, ETENGABEKO EZINTASUN ABSOLUTUA EDO TOTALA HOBETU DELA ETA.
- G. **55** URTETIK GORAKO LANGILEENTZAKO LANGABEZIAGATIKO SOROSPENA.

## LANGABEZIAGATIKO KONTRIBUZIO-MAILAKO PRESTAZIOA AGORTU DUTEN LANGILEAK, FAMILIA ERANTZUKIZUNAK DITUZTENAK

### BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

- Langabeziagatiko prestazioa agortu izana.
- Enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea hilabete bateko epean, ordaindutakoaren arabera prestazioa agortzen denetik aurrera (ordura arte onartutako prestazioa bukatzen den eguna, betiere, azken prestazioa ko-bratu baino lehenagokoa izan behar dena), eta izen-emate hori sorospena jasotzen den epe osoan mantentzea, enplegu-eskaintza apropos bati uko egin gabe eta, zergati justifikatua denean salbu, lanbide-sustapenerako, -prestakuntzarako edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe.
- Familia erantzukizunak izatea.

### DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

- Familia-liburua edo dokumentu baliokidea atzerritarrak badira, legeztatuta eta itzulita.
- 26 urtetik gorako seme-alaba minusbaliatuen kasuan, IMSERSOk edo dagokion Autonomia Erkidegoko orga-noak igorritako minusbaliotasun mailaren ziurtagiria; edota GSINK, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren zein Defentsa Ministerioaren ebazpena, pentsiodun izaera onartzen duena ezintasun iraunko-rragatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, edo erretiro izaera, zerbitzugintzarako behin-betiko ezintasunagatik edo ezereztasunagatik.
- Harreraren ebazpen judiziala edo hori formalizatzeko idazkia; bertan, lurralde bakoitzean adingabekoen babe-serako ardura duen Erakunde Publikoaren onarpena agertu beharko da, eta harreraren efektu-data.
- Sententzia eta/edo hitzarmen arau-emailea, banantze edo dibortzioaren kasuan.

## IRAUPENA

Sei hilabete, interesdunak aurretik eskatuta iraupen berebereko beste bi epez luza daitezkeenak, gehienez 18 hilabete arte, ondoko salbuespenekin:

- Gutxieneko sei hilabeteko kontribuzio-mailako prestazioa agortu duten 45 urtetik beherakoek, sei hilabeteko beste luzapen baterako eskubidea ere izango dute, 24 hilabete bete arte.
- Gutxieneko lau hilabeteko kontribuzio-mailako prestazioa agortu duten 45 urtetik gorakoek, gainera, sei hilabeteko beste luzapen baterako eskubidea izango dute, 24 hilabete bete arte.
- Gutxieneko sei hilabeteko kontribuzio-mailako prestazioa agortu duten 45 urtetik gorakoek, sei hilabeteko beste luzapen baterako eskubidea ere izango dute, 30 hilabete bete arte.
- Langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestazioaren agorpenaren datan adina izatea beharrezkoa da.
- Langile finko etendunen kasuan, eskaeraren aurretiko urtean kotizatutako hilabete kopuruaren baliokide izango da iraupena.

## IZAPIDEAK

Itxaron-hilabetea bete eta hurrengo 15 egun balioduneko epean egingo da eskaera, kontribuzio-mailako prestazioa agortzen denetik.

## LANGABEZIAGATIKO KONTRIBUZIO-MAILAKO PRESTAZIOA AGORTU DUTEN 45 URTETIK GORAKO LANGILEAK, FAMILIA ERANTZUKIZUNIK EZ DUTENAK

### BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

- Kontribuzio-mailako prestazioa agortu izana.
- Enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta egotea hilabete bateko epean, ordaindutakoaren arabera prestazioa agortzen denetik aurrera (ordura arte onartutako prestazioa bukatzen den eguna, betiere, azken prestazioa ko-bratu baino lehenagokoa izan behar dena), eta izen-emate hori sorospena jasotzen den epe osoan mantentzea, enplegu-eskaintza apropos bati uko egin gabe eta, zergati justifikatua denean salbu, lanbide-sustapenerako, -prestakuntzarako edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe.
- Kontribuzio-mailako prestazioa agortzen den datan 45 urte beteta izatea.

### IRAUPENA

Luza ezin daitezkeen sei hilabete.

Langile finko etendunen kasuan, eskaeraren aurretiko urtean langabeziagatik kotizatutako hilabete kopuruaren baliokide izango da iraupena.

### IZAPIDEAK

Itxaron-hilabetea bete eta hurrengo 15 egun balioduneko epean egingo da eskaera, kontribuzio-mailako prestazioa agortzen denetik.

## ITZULITAKO LANGILE EMIGRANTEAK

### BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

- Espainiarra izatea.
- Enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea hilabete bateko epean, eta izen-emate hori sorospena jasotzen den epe osoan mantentzea, enplegu eskaintza apropos bati uko egin gabe eta, zergati justifikatua denean salbu, lanbide-sustapenerako, -prestakuntzarako edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe.
- Atzerrian lan egin izana, Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren herrialdeetan edo Suitzan, gutxienez 12 hilez azken sei urteetan, Espainiatik azken aldiz irten denetik.
- Espainiatik irten aurreko 6 urteetan pilatutako kotizazioengatik langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea.

### DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

- Gobernuko Ordezkaritzek edo Ordezkariordezek egindako ziurtagiria; bertan, itzultzeko data eta atzerriko herrialdean lan egin den denbora islatu beharko da.

### IRAUPENA

Sei hilabete, iraupen bereko beste bi alditan luzatzeko aukerarekin, aurretik interesdunak hala eskatuta, gehienez 18 hilabeteraino, betekizunak mantenduz gero.

## IZAPIDEAK

Itzultzen denetik 30 eguneko epea du langileak enplegu-eskatzaille gisa inskribatzeko. Hilabete bat egon behar da izena emanda, eta itxaron-hilabetea igaro eta 15 egun balioduneko epean egin beharko du eskaera.

## LANGABEZIAKO LEGEZKO EGOERAGATIK, KONTRIBUZIO-MAILAKO PRESTAZIOA JASOTZEKO GUTXIENEO KOTIZAZIO-EPEA BETE EZ DUTEN LANGILEAK

### BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

- Legezko langabezia egoeran egotea.
- Legezko langabezia egoera hasten denetik 15 egun balioduneko epean enplegu eskatzaile gisa izena ematea, eta izen-emate hori mantentzea sorospena jasotzen den bitartean.
- Langabeziagatiko gertakizuna biltzen duen Gizarte Segurantzako erregimen batean gutxienez hiru hilabete kotizatuta izatea familia erantzukizunak baldin baditu, edo sei hilabete ez baditu, eta kontribuzio-mailako prestazio baterako eskubidea izateko gutxieneko kotizazio epea estalita ez izatea (360 egun).
- Familia erantzukizunak baditu.

### DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

- Azkenekoz lan egin zen enpresaren ziurtagiria, horrek oraindik Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari bidali ez badio [Certific@2](mailto:Certific@2) sistemaren bitartez.

### GAINERA, FAMILIA ERANTZUKIZUNAK IZATEKOTAN:

- Familia-liburua edo dokumentu baliokidea atzerritarrak badira, legeztatuta eta itzulita.
- 26 urtetik gorako seme-alaba minusbaliatuen kasuan, IMSERSOk edo dagokion Autonomia Erkidegoko organoak igorritako minusbaliotasun mailaren ziurtagiria; edota GSINK, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren zein Defentsa Ministerioaren ebazpena, pentsiodun izaera onartzen duena ezintasun iraunkorragatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, edo erretiro izaera, zerbitzugintzarako behin-betiko ezintasunagatik edo ezereztasunagatik.



- Harreraren ebazpen judiziala edo hori formalizatzeko idazkia; bertan, lurralde bakoitzean adingabekoen babe-serako ardura duen Erakunde Publikoaren onarpena agertu beharko da, eta harreraren efektu-data.
- Sententzia eta/edo hitzarmen arau-emailea, banantze edo dibortzioaren kasuan.

## IRAUPENA

Kotizatutako hilabete kopuruaren arabera eta familia erantzukizunak diren edo ez diren arabera da:

- Langileak familia erantzukizunak baditu:
  - \* Hiru hilabete, baldin eta hiru hilabete kotizatu baditu.
  - \* Lau hilabete, baldin eta lau hilabete kotizatu baditu.
  - \* Bost hilabete, baldin eta bost hilabete kotizatu baditu.
  - \* 21 hilabete, baldin eta sei hilabete edo gehiago kotizatu baditu.
- Langileak familia erantzukizunik ez badu:
  - \* Sei hilabete, baldin eta sei hilabete edo gehiago kotizatu baditu.

Sorospenaren iraupena, langile finko etendunen kasuan, eskaeraren aurretiko urtean kotizatutako hilabete kopuruaren baliokide izango da.

Kasu horietan eskubidea onartzen denean, sorospena sortzeko balio duten kotizazioak ezingo dira kontuan hartu kontribuzio-mailako edo laguntza-mailako prestazio gehiago jasotzen jarraitzeko.

## IZAPIDEAK

Eskatzaileak legezko langabezi egoeraren ondorengo 15 egun balioduneko epean bideratuko du eskaera.

## ESPETXETIK ASKATUTAKOAK

### BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

- Espetxetik irten izana eta langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestaziorik jasotzeko eskubiderik ez izatea.
- Espetxean sei hilabete baino gehiagoz egon izana.
- Barrurapen-zentro batetik askatutako adingabeak, non delitu gisa tipifikatutako gertakizunen gertaeren ondorioz sartu diren, egora honetan daude ere, sei hilabetez edo gehiagoz askatasun gabezia izateaz gain, askatutako unean 16 urtetik gorakoak baldin badira. Era berean, drogazaletasuna gainditzeko tratamenduari amaiera eman dioten pertsonak egoera horretan hartuko dira, tratamenduak sei hilabete edo gehiago iraun badu eta Zigor Kodearen 87. artikuluan ezarritakoa aplikatuta askatasun gabeziaren zigorra barkatu bada.
- 13 urtetik beherakoen gaineko sexu-abusu edo -erasoak direla eta kondenatu bazuten, edota prostituzioari lotutako delituengatik zein heldugabeak galbidean jartzeagatik, biktimak 13 urte baino gutxiago dituenen, delituagatik duen erantzukizun zibila bete duela ziurtatu beharko du Espetxe-administrazioak, eta espresuki barkamena eskatu diola/diela delituaren biktimari/biktimei.

Edonola ere, Espetxe-administrazioak ziurtatu beharko du espetxetik askatutakoak aurreko bi ataletan zehaztutako delituengatik askatu zen edo beste edozein delitirengatik.

- Enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea hilabete bateko epean, eta izen-emate hori sorospena jasotzen den epe osoan mantentzea, enplegu eskaintza apropos bati uko egin gabe eta, zergati justifikatua denean salbu, lanbide-sustapenerako, -prestakuntzarako edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe.

### DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

- Espetxeko zuzendariaren ziurtagiria; bertan, behin-behineko espetxeratzearen ondoren, zigorra betetzeagatik edo baldintzapeko askatasunagatik atera dela frogatu beharko da, baita espetxean sartzeko eta bertatik ateratzeko data.

- Espetxe-administrazioaren ziurtagiria; bertan zehaztu beharko da espetxetik askatu dena honako delituengatik kondenatu zuten:
  - a. Hamahiru urtetik beherakoen gaineko sexu-abusu edo -erasoak.
  - b. Prostituzioari lotutako delituak zein heldugabeak galbidean jartzeagatikoak, biktimak 13 urte baino gutxiago dituenen.

a) edo b) ataletan zehaztutako delituengatik kondenatu bazuten, delituagatik duen erantzukizun zibila bete duela ziurtatu beharko du Espetxe-administrazioak, eta espresuki barkamena eskatu diola/diela delituaren biktimari/biktimei.

## IRAUPENA

Sei hilabete, interesdunak eskatuta, iraupen berbereko beste bi epez luza daitezkeenak gehienez 18 hilabete arte.

## IZAPIDEAK

Espetxetik irteten denetik 30 eguneko epea du langileak enplegu-eskatzaile gisa inskribatzeko. Hilabete bat egon behar da izena emanda, eta itxaron-hilabetea igaro eta 15 egun balioduneko epean egin beharko du eskaera.

## OHIZKO LANERAKO ERABATEKO BALIAEZINTASUN IRAUNKOR, BALIAEZINTASUN HANDI EGOERA HOBETZEKO ESPEDIENTEAK BERRIKUSTEAREN ONDORIOZ GUZTIZ GAI EDO BALIAEZIN PARTZIAL AITORTZEN DIREN LANGILEAK.

### BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

- Enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egotea hilabete bateko epean, eta izen-emate hori sorospena jasotzen den epe osoan mantentzea, enplegu eskaintza apropos bati uko egin gabe eta, zergati justifikatua denean salbu, lanbide-sustapenerako, -prestakuntzarako edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe.
- Ohiko lanbiderako guztiz gai dela aitortu izatea edo behin-betiko ezintasun partzialeko mailan ezgaitua aitortuta izatea, ohiko lanposturako ezintasun iraunkor osoaren, ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren egoera hobetu izanagatik egindako azterketa espediente baten ondorioz.

### DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

- Hobekuntzagatik berrikuspen espedientearen ebazpenaren fotokopia

### IRAUPENA

Sei hilabete, interesdunak eskatuta, iraupen berbereko beste bi epez luza daitezkeenak gehienez 18 hilabete arte.

## IZAPIDEAK

Gaitasunaren edo ezintasun iraunkor partzialeko mailako ezintasunaren onarpen datatik 30 eguneko epea du langileak enplegu-eskatzaile gisa inskribatzeko. Hilabete bat egon behar da izena emanda, eta itxaron-hilabetea igaro eta 15 egun balioduneko epean egin beharko du eskaera.

## 55 URTEK GORAKOENTZAKO LANGABEZIAGATIKO SOROSPENA

### BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK

- 55 urte beteta izatea langabeziagatiko prestazioa edo sorospena agortzen den egunean, edo adin hori beteta izatea laguntza hauetako bat jasotzeko baldintzak betetzen diren unean, edo adin hori betetzea hura jasotzen ari den bitartean:
  - \* Langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestazio bat agortu izana.
  - \* Langile espainiarra izatea, Europar Batasunaren zein Europako Esparru Ekonomikoaren parte ez den herrialde batera emigratu ondoren itzuli dena, ezta Australiara edo Suitzara ere; Espainiatik emigratu aurreko sei urteetan pilatutako kotizatutakoagatik langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestaziorik jasotzeko eskubiderik ez izatea, eta gutxienez 12 hilabetez lan egin izana Espainiatik emigratu aurreko azken 6 urteetan, Europako Esparru Ekonomikoaren parte ez diren herrialdeetan, Australian edo Suitzan.
  - \* Espetxetik askatuta izatea eta langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea, eta sei hilabete baino gehiagoko askatasun gabezia izatea.
  - \* Ohiko lanbiderako baliaezintasun handiko, absolutuko edo osoko egoera baten hobekuntzagatik berrikuspen espedientearen ondorioz erabateko gai edo baliaezin partzialtzat hartuta izatea.
  - \* Legezko langabezia egoeran egotea, langabeziagatiko kontribuzio-mailako prestaziorako eskubiderik ez izatea gutxienezko kotizazio epea ez betetzeagatik (12 hilabete), gutxienez hiru hilabetez kotizatu duenean.
- Aurretik deskribatutako egoera batean egotea

Nahiz eta eskatzaileak [LGSren % 75](#) baino gehiagoko errentarik ez izan, errentarik ez izatearen baldintza bete dela ulertuko da soilik familiako kide guztien (ezkontide eta/edo 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo adineko minusbaliatuak edo hartutako adingabeak) diru-sarrerak, eta hala badagokio, eskatzailearena ere barne, batu eta kideen kopuruaz zatitzean LGSren % 75 ez badu gainditzen, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kontuan hartu gabe.

- Enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea hilabete bateko epean, ordaindutakoaren arabera prestazioa agortzen denetik aurrera (ordura arte onartutako prestazioa bukatzen den eguna, betiere, azken prestazioa kobratu baino lehenagokoa izan behar dena), eta izen-emate hori sorospena jasotzen den epe osoan mantentzea, enplegu-eskaintza apropos bati uko egin gabe eta, zergati justifikatua denean salbu, lanbide-sustapenerako, -prestakuntzarako edo -birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin gabe. Lan-bizitzan zehar gutxienez sei urtez langabeziagatik kotizatu izana.
- Espainiako Gizarte Segurantzaren Sistemaren kontribuzio-mailako erretiro-pentsioa jasotzeko baldintza guztiak betetzea, adina salbu.
- Aurreko baldintzak betetzen dituen langileak sorospen hau jaso ahal du ondoko kasuetan:
  - \* Sorospena jasotzen egotea edo jasotzeko eskubidea izatea.
  - \* Sorospena agortu izana.
  - \* Langabeziagatik prestazioa agortua izatea eta dagokion sorospenik ez jasotzea, edo hori amaitu izana, hasieratik edo bat-batetik errenten baldintza ez betetzeagatik edo familia erantzukizunaren baldintza ez betetzeagatik.

Sorospen hau ez da langile finko etendunengan aplikatuko egoera hori mantentzen duten bitartean.

## DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA

- Familia-liburua edo dokumentu baliokidea atzerritarrek badira, legezkatuta eta itzulita.
- 26 urtetik gorako seme-alaba minusbaliatuen kasuan, IMSERSOk edo dagokion Autonomia Erkidegoko organoak igorritako minusbaliotasun mailaren ziurtagiria; edota GSINK, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren zein Defentsa Ministerioaren ebazpena, pentsiodun izaera onartzen duena ezintasun iraunkorragatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, edo erretiro izaera, zerbitzugintzarako behin-betiko ezintasunagatik edo ezereztasunagatik.
- Harreraren ebazpen judiziala edo hori formalizatzeko idazkia; bertan, lurralde bakoitzean adingabekoen baberako ardura duen Erakunde Publikoaren onarpena agertu beharko da, eta harreraren efektu-data.
- Sententzia eta/edo hitzarmen arau-emailea, banantze edo dibortzioaren kasuan.

## IRAUPENA

Erretiroko adinera iritsi arte, edozein modalitatetan

## IZAPIDEAK

Kontribuzio-mailako prestazioa agortu denean, 55 urte bete baditu, itxaron-hilabetea igaro ondoren 15 lan balioduneko epea du eskatzaileak eskaera egiteko.

Lan egindako azken egunetik hurrengo 15 egun balioduneko epean. Enpresak lana utzi aurretik gozatu ez diren oporrak ordaindu baditu, opor horiek bukatzean hasten da zenbatzen 15 eguneko epea.

Eskatzaileak langabeziagatiko sorospena agortu zaionetik 15 eguneko epean egingo du eskaera une horretan 55 urte beteak baditu.

Beste sorospen bat jasotzen ari bada eta 55 urte betetzen baditu, 55 urtetik gorakoentzako laguntza eskatu ahal izango du adin hori betetakoa.

Aurkeztu beharko den dokumentazioa sorospen hori jasotzeko egoeraren arabera izango da.

SEPEk ziurtagiri bat eskatuko dio GSI Nri, interesdunak ordaindutakoaren arabera erretiro-pentsioa jasotzeko behar adinako gabezia-aldia bete duela egiaztatzeko. Gabezia-aldi hori egiaztatzeko, Espainian egindako kotizazioez gain, EBko edo EEEko beste herrialdeetan edo Suitzan egindakoak ere kontuan hartuko dira.

Sorospena jasotzen ari den bitartean, urtea igarotzen den bakoitzean, edo urtearen multiploa, eskubidea sortu zenetik edo berreskuratu zenetik, Enplegu Zerbitzu Publikoaren Bulegoan aurkeztuko da, 15 laneguneko epean, aldi horretan jasotako errenten aitorpena.

Kontribuzio-mailako prestazioa agortu den unean edo langabezia egoera legez agortu denean errentarik edo familia erantzukizunik ez izatearen baldintza betetzen ez duelako laguntza jasotzerik ez badu, 55 urtetik gorakoentzako sorospena eskatu ahal izango du gertakaria gertatu zenetik urtebete igaro baino lehen baldintzak betetzen baditu eta une horretan 55 urte beteak baditu.



55 urtetik gorakoentzako sorospena jasotzen duten langileek, Hitzarmen Berezia izenpetu ahalko dute Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Zuzendaritza Probintzialen bidez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak egiten duen erretiroagatiko kotizazioa osatzeko.

55 urtetik gorako langileentzako langabeziagatiko sorospena beste edozein sorospenen gainetik aintzatetsiko da.

## LANGILEEN BETEBEHARRAK

Langileen betebeharrak dira:

Sorospena jasotzeko eskubidea aitortu, ezereztu, eten edo berrasteko beharrezkoak diren dokumentuak eta informazioa ematea, eta Autonomia Erkidegoetako Enplegu Zerbitzu Publikoari (SPE) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari (SEPE) helbidea eta, dagokionean, helbide-aldaketa jakinaraztea, hura gertatzen denean, jakinarazpenak bertara bidaltzeko.

- Jarduera-konpromisoa sinatzea eta haren baldintzak betetzea.
- Enplegua aktiboki bilatzea eta, hala balegokio, Enplegu Zerbitzu Publikoak zehaztutako enplegarritasunaren hobekuntzarako ekintzetan parte hartzea, laneratze ibilbide batean.
- Langabeziagatiko sorospenean baja eskatzea eskubidearen amaiera eragin duten egoerak gertatzen direnean edo hura jasotzeko baldintzak betetzen ez direnean.
- Enplegu eskaera berritzea, enpleguaren eskaera-txartelean zehazten den eran eta datan.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan, irabazi asmorik gabeko Laneratzeko Agentzian edo Enplegu Zerbitzu Integratuen Erakunde Elkartuan bertaratzea, haiek eskatutakoan, esandako lekuan eta egunean. 5 eguneko epean, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari edo irabazi asmorik gabeko Laneratzeko Agentziari, edo, hala badagokio, erraztutako enplegu-eskaintzak betetzeko adierazitako lekuan eta datan agertu izanaren egiaztagiria itzultzea.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo irabazi asmorik gabeko Laneratzeko Agentziaren lan egokiak onartzea, eta gizarte lankidetzarako lanetan, enplegu programetan edo profesionalen sustapen, trebatze edo bihurtze programetan parte hartzea, arrazoi garrantzitsu bat dagoenean izan ezik.
- Behar ez bezala jasotako sorospena berriz itzultzea.

## SOROSPENAREN BATERAGARRITASUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK

### BATERAGARRITASUNA

Langabeziagatiko sorospena jasotzea ondokoekin bateragarria da:

- Besteren konturako eta ordaindutako lana, lanaldi partzialarekin, baita lanaldi partzialean kontratu finkoarekin lanean ari diren ekintzaileei laguntzeko kasuetan ere, sorospenaren zenbatekoari dagokion kenkarietan eraginik izan gabe, eta lan horretatik eratorritako errenta gisa hartuta.
- Lan kontratuaren amaierari dagokion kalte-ordainketa.
- Erretiro partzialeko pentsioa eta langabeziagatiko prestazioa edo sorospena eragin zuten lanarekin bateragarriak ziren Gizarte Segurantzaren izaera ekonomikoko pentsioak edo prestazioak. Lanerako prestakuntza ekintzetara joateko, erakunde publiko edo pribatuetan praktikak burutzeko jasotako beka eta laguntzekin, entitate horiek hezkuntza zentroarekin lankidetzan ari badira.
- Gizarte lankidetzaren lanak burutzearekin.
- Ardurapeko seme-alabagatik Gizarte Segurantzaren prestazioekin.
- Lanaldi partziala eskatzen duten ordaindutako kargu publikoen edo sindikatuetao karguen esleipenaren ondoriozko jarduerarekin, ordainsari horiek errenta gisa zenbatuko dira eta sorospenari dagozkion kenkariak burutuko dira.

### BATERAEZINTASUNA

Langabeziagatiko sorospena jasotzea ondokoekin bateraezina da:

- Beren jatorria edozein bada ere, hilero Lanbide arteko [Gutxieneko Soldataren %75](#) baino handiagoko errentarik ez izatea, aparteko bi ordainen zati proportzionala kenduta.

- Familia erantzukizunak izateari utzi zaionean, horiek sorospena jasotzeko baldintza badira.
- Besteren konturako lanaldi osoko soldatapeko lanarekin, lan edo administrazio erregimenean, edo parekatutako egoerekin, Gizarte Segurantzaren Sistemaren edozein erregimenetan sartzea badakarte, nahiz eta langabeziagatik gertakizunagatik kotizatzea aurreikusita ez egon, enpleguaren sustapenerako programaren batetan bateragarritasuna ezarrita badago salbu.
- Norbere konturako lanarekin, jarduerari zuzendutako ordu kopurua eta jasotako emaitza ekonomikoak edozein badira ere, nahiz eta jarduera hau burutzeak Gizarte Segurantzaren erregimenen batetan beharrez sartuta egotea ez suposatu.
- Soldatapeko ikerketa eta lankidetzak jarduerekin, arduraldi eskusibokoak badira. Hautaketa eta izendatzeagatik kargu publikoak edo kargu sindikalak edo administrazioako goi-karguak betetzearekin, ordaindutakoak eta arduraldi eskusibokoak badira. Gizarte Segurantzaren pentsio edo prestazio ekonomikoekin, kontribuzio-mailakoak zein ez, bateragarritasunaren atalean aipatutakoak izan ezik.
- Esleitutako erreserbaren jarduerarekin, abenduaren 12ko 1691/2003 Errege Dekretuak bildutakoa, modu boluntarioan erreserbatu nahi dutenen sarbidea eta erregimena onesten duena.
- Jarduera eteteagatik jasotzen uzten diren soldatak ordeztzen dituzten hartukizun ekonomiko publikoentzako eskubidea dakarren beste edozein egoerarekin, lotura administratiboa edo lan lotura mantenduta.

## ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Arau-hausteak langabeziagatik babesak arautzen dituzten xedapenen aurka doazen ekintzak edo omisioak dira. Sailkapenaren arabera, zigorrak ezarriko dira, eta zenbait kasutan zigor erantzukizunak ere eskatu ahal izango dira.

### ARAU-HAUSTE ARINAK

- Erakunde Kudeatzailerak, irabazi asmorik gabeko Laneratzeko Agentziara edo Enplegu Zerbitzu Integratuen Erakunde Elkartura ez joatea haiek eskatutakoan, arrazoi garrantzitsu bat dagoenean izan ezik.
- Enplegu eskaera dokumentuan zehazten den eran eta datan enplegu eskaera ez berritzea.
- Enplegu Zerbitzu Publikoko Bulegoari edo, hala balegokio, irabazi-asmorik gabeko Enplegu Agentziari lan eskaintzetara behar den tokian eta datan agertu izanaren ziurtagiria ez aurkeztea, bost eguneko epean, justifikatutako arrazoi batengatik izan bada salbu.
- Jarduera-konpromisoa sinatu zenean adostutako baldintzak ez betetzea, arrazoi garrantzitsu bat dagoenean izan ezik.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari eta Autonomia Erkidegoko Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinarazpenak eta oharra jasotzeko behar duten informazioa ez ematea.

### ZIGORRAK:

- Sorospena hilabete batez galtzea.
- Berrito gertatuz gero, bigarren aldian hiru hilez galduko da sorospena; hirugarrenean, sei hilez; eta laugarrenean, sorospena jasotzeko eskubidea galduko da.

## ARAU-HAUSTE LARRIAK

- Lan-eskaintza egokia errefusatzea, edo gizarte-lankidetzako lanetan, enplegu-programetan edo sustapen- eta prestakuntza-ekintzetan eta profesionalak bihurtzeko ekintzetan parte hartzeari uko egitea, justifikatutako arrazoi batengatik bada salbu.
- Arrazoi justifikaturik gabe sorospenaren baja ez jakinaraztea, sorospena etengo lukeen egoera gertatzen denean edo eskubidea agortu denean, edo hura jasotzeko baldintzak betetzen ez direnean, eta hori dela eta sorospena erruz jasotzen bada.

### ZIGORRAK:

- Aurreko puntuko lehen gidoiak biltzen dituen arau-haustek sorospena hiru hilez galtzarekin zigortuko dira.
- Berrito gertatuz gero, hiru hilez galduko da sorospena, eta hirugarren aldiz gertatzen bada, sorospena betirako galduko da.
- Aurreko ataleko bigarren gidoiak biltzen duen arau-haustea sorospena jasotzeko eskubidea zuzenean galtzarekin zigortuko da.
- Sorospena galtzen den kasu guztietan, oker jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira.

## ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK

- Sorospena eta norbere edo besteren konturako lana bateratzea, lanaldi partzialak direnean izan ezik, non langileak sorospena jasotzen jarraitzea erabaki duen, edozein motatako errentak ez dituenean, soldata berria barne, Lanbide arteko Gutxieneko [Soldataren %75](#) gainditzen duena, aparteko bi ordainen zati proportzionala kenduta, edo langilea enplegua sustatzeko programaren batean ez dagoenean, diru-laguntza besteren kontura lan egitearekin bateratzea ahalbidetzen duena.
- Iruzurrez bidegabeko prestazioak jasotzea edo dagozkionak baino handiagoak jasotzea.
- Enpresariarekin elkarkeria, langabeziagatiko bidegabeko prestazioak jasotzeko.

**ZIGORRAK:**

- Sorospena agortzea.
- Okerrean jasotako zenbatekoak itzultzea.
- Halaber, langabeziagatiko prestazioak jasotzeko eskubiderik gabe utzi ahal izango da eta enplegua sustatzeko laguntza jasotzeko eskubiderik gabe ere bai, urtebetez.

Informazio gehiago:

## **Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa**

[www.sepe.es](http://www.sepe.es)

901 11 99 99

(Probintzietako telefono-zenbakiak ere eskuragarri)



[www.sepe.es](http://www.sepe.es)

*Trabajamos para ti*